



LGTBIQ+ FOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Aurten Ikastolan aniztasunaren lanke-ta indartuko dugu maiatzaren 17aren testuin-guruan. Gure sexualitatea era askean bizit-zeko eskubideaz aritzeaz gain, sexu identitate aniztasunaren presentziaz eta aberastasunaz jabetuko gara.

Une oro presente dugun eta inguratzen gaituen heteroarauarekin apurtu (neska eta mutiltan, femeninoan eta maskulinoan banatzen gaituen araua) eta inguruan ditugun genero-identitate ezberdinak, orientazio afektibo-sexualak errespetatarazi nahi ditugu.

Okerreko bidetik garamatzen hete-roaraua zalantzan jartzeko eta honetaz hausnartzeko jarduera ezberdinak burutuko ditugu adierazpen artistiko ezberdinen bitartez; izan dantza, izan kanta, izan margoketa... bihur dezagun ikastola ortzadar!

Bestalde, familian jorratzeko zenbait proposamen eta baliabide utzi nahi dizkizuegu:

IKUS-ENTZUNEZKOAK



“20.000 especies de abejas” Esti Urresola Solaguren zuzendari audioarraren filma **Laudion** ikusgai izango dugu maiatzaren 20an.

Naizen elkarteak ekoiztutako sexu identitatea eta aniztasuna lantzeko 5 minutuko 5 bideo:

bideo sorta ikusi 



“Hodei” ipuina

ikusi hemen 

KANTATU

Gatibu: “Aske maite”

Yogurina Borova: “Sentipenak askatu”


DANTZATU

Yogurina Borova: “Maite duzunarekin dantzatu”


ikusi hemen 

IRAKURRI

“Koloretako munstroa” ipuina

eskaera egin 

Naizen: “Tránsitos” liburua

eskaera egin 

HEZKIDETZA AISIALDIAN

FORMAKUNTZA SAIOA MAIATZAREN 19AN

Aisialdiko hezitzaileekin hezkuntza ez formalean ikuspegi hezkidetzalea lantzeko saioa burutuko dugu Laudio Ikastolan datorren maiatzaren 19an Hiruki Larroxa kooperatibaren eskutik.

Lan hezitzaileak berebizibiko garrantzia dauka jendarte parekide bat lortze bidean eta eremu ez-formalean ere ezinbestekoa da parekidetasuna lortzeko estrategiak sortzea eta garatzea.



Hortaz, gehienez 4 orduko iraupena izango duen saio dinamikoa izango da, 15:30ean hasita. Helburua hezitzaileak hezkidetzaren garrantziaz jabetu eta kontzientziatzea da, hezkidetzaren jendartean eraldaketarako tresna gisa ulertuz.

Lan saio hau monitoretza egin dutenei, egiten daudenei, aisialdiko hezitzaile direnei, zelariei, ... finean hezkuntza formalek kanpo umeekin aritzen den eta interesa duen orori bideratuta dago.

Izena eman maiatzaren 15a baino lehen: eke@laudioikastola.eus helbidera bidali izen-abizenak jarritz.